

## **Donostiako Ontzi Museoa "Euskaldunak eta Ozeano Barea"**

Euskaldunek betidanik izan dute itsasoarekin lotura. Historian, itsas espedizio ugaritan parte hartu izan dute. Alor hori ezagutarazteko asmoz antolatu du Donostiako Itsas Museoak ondorengo erakusketa: Euskaldunak eta Pazifikoa: Andres Urdanetaren omenez.

XVI. mendetik gaur egun arte, itsas nabigaziorako ibilbide berrien bila, nahiz merkataritza arrazoiengatik Ozeano Borean ibili izan diren euskal herritarrei buruzko informazioa ematea da erakusketaren helburua. Batez ere, Filipinetan, Japonian, Ameriketako mendebaldeko kostan nahiz Txina hegoaldeko kostaldean izandako presentzia aztertu dute.

Andres Urdaneta nabigatzailea nolabait omendu nahi duen arren erakusketak, Urdanetaz gain, Joan Sebastian Elkanori eta Miguel Lopez de Legazpiri buruzko atal bana ere jarri dituzte.

XVI. mendetik gaur egun arte, hau da, mendebaldeko herrialdetako konkistatzaileak Asiako ingurune horietara iritsi zirenetik gaur arteko gertakariak ikus daitezke erakusketan, kronologikoki kontatuta. Mendeetan euskal herritarrek Asiarekin izandako merkataritza harremanak nahiz duela ez hainbeste euskal enpresak Txinan finkatzen hasi zireneko garaia.

2010eko otsailaren 28a arte egongo da ikusgai Donostiako Ontzi museoan. Asteartetik larunbatera, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era bisita daiteke; igande eta jai egunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

### **KONTZERTUA**

Noiz. 2010eko otsailaren 28a arte egongo da ikusgai.

Non. Donostiako Ontzi museoan.